

**BERTSOLARITZA.** Herrialdeka jokaturako txapelketetan nabarmendutakoak dira finalistak

# Final nagusia du bihar Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketak

Hemeretzi bertsolari lehiatuko dira, Mungiako plazan, bi txapelen bila: txikiena eta handiena



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Miren Amuriza, Bizkaiko Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finalean, txikien mailako txapela janzten.

Juan Luis Zabala | DONOSTIA

Mungiako plaza Euskal Herriko Eskolarteko XIV. Bertsolari Txapelketako finalaren lekuko izango da bihar, eguarteko 11:00etatik aurrera. Zuberoakoak izan ezik, Euskal Herriko gainerako lurralde guztietako bertsolariak izango dira parte-hartzaileen artean. Hemeretzi bertsolari ariko dira, hamar txikien mailan (14 urtetik behera-koak) eta bederatzi handiengan (15 urtetik 18ra bitartekoak).

Aurretik herrialdeka jokaturako txapelketa edo sailkapen faseetan nabarmendutakoak dira Mungian ariko diren finalistak.

Aurten izan ez bada ere, ondorengo urteetan Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako par-

te-hartzaileen artean zuberotarrik izan dadin saiatzeko asmoa dute antolatzaileek, atzo finalaren aurkezpena egitean adierazi zuten.

Aurreko urteetan Igor Elortza egin izan du gai-jartzaile lana finaleko saioan, baina aurtengoan Nagore Soroak hartuko dio lekukoa. Arabako Ikastolen Elkarte ko koordinatzailea da Nagore Soroa.

## Bost epaimahaikide

Epaimahaia, berriz, bost lagunek osatuko dute: Eneko Bidegain (Iparraldetik), Juan Mari Juaristi (Arabatik), Beñat Gaztelurutia (Bizkaitik), Arantzazu Loidi (Gipuzkoatik) eta Iñigo Olaetxea (Nafarroatik).

Txikien mailako finalistek honako lan hau egin beharko

dute hasieran: agurra, gai biren inguruan bertso bana (erdiak gai batekin, beste erdiak beste batekin); lau oinak denei batera eman eta altxatu heinean bertso bana; binaka, ofiziotan, zortziko txikian bina bertso. Lan horien ondoren, lau bertsolarik egingo dute aurrera, eta horiek ofiziotan bina bertso kantatu beharko dituzte zortziko handian.

Handien mailako bederatzi finalistek, berriz, zeregin hauek izango dituzte: agur bana, librean; binaka ofiziotan, zortziko handian, bina bertso; binaka, ofiziotan, zortziko txikian, bina bertso. Lau onenek, berriz, bi ariketa egin beharko dituzte finala amaitu aurretik: puntuari erantzun eta gai bati bina bertso neurri librean.

## FINALISTAK

### TXIKIEN MAILAN (14 urte bitartekoak)

#### Arabatik

■ Maialen Berasategi (Gasteiz)

#### Bizkaitik

■ Miren Amuriza (Berriz)

■ Eñaut Uruburu (Abadiño)

#### Gipuzkoatik

■ Hodei Iruretagoiena (Zarautz)

■ Unai Gaztelumendi (Añorga)

#### Lapurditik

■ Maddalen Arzallus (Hendaia)

■ Maindi Murua (Azkaine)

#### Nafarroa Beheretik

■ Mizel Mateo (Bidarra)

#### Nafarroatik

■ Garazi Taberna (Bera)

■ Aitor Zubiria (Etxarri-Aranatz)

### HANDIEN MAILAN (15 urtetik 18ra bitartekoak)

#### Arabatik

■ Iñaki Viñaspre (Gasteiz)

#### Bizkaitik

■ Jon Rementeria (Gernika)

■ Oihana Bartra (Bilbo)

#### Gipuzkoatik

■ Beñat Gaztelumendi (Añorga)

■ Ander Lizarralde (Oizartzun)

#### Lapurditik

■ Miren Artetxe (Hendaia)

■ Eneritz Zabaleta (Baiona)

#### Nafarroatik

■ Jon Elizetxe (Gartzain)

■ Mikel Azpiroz (Leitza)

Ikastolen Elkarteak antolatzen du Eskolarteko Bertsolari Txapelketa, Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, BBK Bertsosale Elkartearen eta Mungiako Udalaren laguntzaz. Haur eta gaztetxoaren artean bertsolaritza suspertzea du xede nagusi txapelketak eta egun aski ezagunak diren bertsolari asko Eskolarteko Bertsolari Txapelketan hasi ziren nabarmen-tzen eta beren burua bertsoen munduan ezagutzera ematen.

**LITERATURA.** Egilearen bibliografia osoa eta Xabier Etxaniz Erleren testu bat ditu elementu nagusiak

## Mariasun Landaren irakurketa gida atondu eta kaleratu dute

Erredakzioa | DONOSTIA

Donostiako Liburutegi Nagusiko Haur eta Gazte Liburuaren Dokumentazio-guneak Mariasun Landa idazlearen irakurke-

ta gida atondu eta kaleratu du. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak irakurzaletasuna sustatzeko antolatutako kanpainaren barruko ekimenetako bat da irakurketa gida horren argital-

pena, eta jarraipena izango duen bilduma bateko lehen alea da Mariasun Landarena.

Bere laburrean, Mariasun Landaren inguruko elementu asko biltzen du irakurketa gidak: Xabier Etxaniz Erlek Landari buruz idatzitako testu bat, *Elefante txori-bihotza* liburuko pasarte bat, Landaren biblio-

grafia osoa (berak idatzitako liburuak, berak itzulitako liburuak, bere liburuen itzulpenak, berak idatzitako artikulak, berari buruzko artikulak, Interneten berari buruz dauden erreferentzia nagusiak), ohar biografiko labur bat eta Landak irabazitako sari nagusien zerrenda.

euskararen  
donostia  
patronatu



## antzerkia

•• **Anarkista baten ezusteko heriotza**  
La Tentación eta Zitzania  
Teatre taldearena  
Ekainaren 23an  
20.00etan  
Antzoki Zaharrea

•• **Hau desastrea, zenbat traste**  
Kike Blas eta Jonas  
pailazoak  
Ekainaren 27an,  
18.00etan  
Egia Kultur Etxean

•• **Hamabi aldiz lehenengo aldia**  
Ekainaren 28an,  
20.00etan  
Egia Kultur Etxean

## kale antzerkia

•• **Hiruak - The Bizkia Family**  
Zirko Ttipia  
Ekainaren 23an,  
18.00etan  
Altzan, Oletako frontoian

•• **Trufaldinoren trufak**  
Gorringo taldearekin  
Ekainaren 22an,  
18.00etan  
Julio Caro Baroja plazan

## zinea

•• **Etxaldeko Erregea**  
Zuzendariak: Gregorio Muro eta Carlos Zabala  
Ekainaren 21etik aurrera  
ohiko ordutegietan  
Príncipe eta Txingudi zineetan

## musika

•• **Oreka TX**  
Ekainaren 22an,  
20.30etan  
Antiguako frontoian

## plaza jaialdia

•• **Ostiral-en zain**  
Kirikoketa Arkupe  
Théâtre  
Bakarne Jorge  
aktorearekin  
Ekainaren 22an,  
17.00etan  
Kursaalean

•• **Antzerki Inprobisazio Lehiaketa**  
Antzerkia eta musika inprobisatuz egindako esperientzia ludikoa  
Ekainaren 23an,  
20.00etan  
Kursaalean